SD EIBAR fundazioa

JARDUERA MEMORIA

2017



GURE BAZKIDEAK EGITEN DUTE POSIBLE SD EIBAR FUNDAZIOA.

SD Eibar Fundazioaren jarduerak egiten segitzen du, enpresa bazkidek ekarpen ekonomikoa egiten dutelako.

SDE/ FUNDAZIOA / BAZKIDE NAGUSIAK

AVIA · Wiko · euskaltel · KIROLBET

SDE/ FUNDAZIOA / BAZKIDE ESTRATEGIKOAK

ORAIN GIPUZKOA · AXA

SDE/ FUNDAZIOA / BABESKIDEAK

IK4 TEKNIKER Research Alliance · etxekit soluciones modulares

SDE/ FUNDAZIOA / BAZKIDE KOLABORATZAILEAK

AGENCIA INMOBILIARIA LARRAGEST
ALDAGAIAK
ALCORTA FORGING GROUP
ASADOR AZITAIN JATETXEA
BAR KOSKOR
BAR TXOKO
BELTRAN ASCENSORES Y MONTACARGAS
CERVECERÍA TRINKETE
EGASCA
EIBARBUS
ELORTZA BOTIKA
GAURVE ASESORES DE EMPRESA
GORITZ
HIERROS SAINZ
LAN HOTZ TALDEA
LEMA
AXA SEGUROS
ONAK INDUSTRIAL IMPORTS
PÉRGOLAS DE BEASAIN
PROSETECNISA
SOLMESA
SOMOS ASESORES
TECNO TALDE
BOJ
EITEK
ROTEK RÓTULOS
BAR LAS TORRES
MURRPLASTIK

INDIZEA

PRESIDENTEAREN AGURRA	04
0. GOBERNUA	05
0. PATRONATUA	06
0. GARDENTASUNA ETA GURE BALIOAK	07
1. KIROL-ARLOA	08
2. BESTE KIROL PRAKTIKA BATZUK	22
3. FORMAKUNTZA	30
4. EUSKARA	44
5. KULTURA	48
6. BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA	51
7. GIZARTE ARLOA	56
8. ENPRESAK, EKINTZAILETZA ETA LEHENENGO LAN-ESPERIENTZIA	64
9. IPURUA TOURRA ETA MUSEOA	67
10. URTEKO KONTUAK 2016-17	69
11. AURREKONTUA 2017-18	70

SD Eibar Fundazioaren Jarduera Memoria, Ipurua Kirol Fundazioaren izen komertziala, G20866422 CIF-arekin, 2017ko abenduaren 31n amaitutako urterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehentasuneko jarduerak bezala katalogatutako lan lerroei buruzkoa. Fundazioaren Urteko Kontuen zerga-ekitaldia, Memoria honekin bat ez datorrena, 2016/07/01etik 2017/06/30era bitartekoa da.

PRESIDENTEAREN AGURRA

Bi urte igaro dira jada SD Eibar eta Fundazioaren Presidente kargua hartu nuenetik, 2016ko maiatzean. Geroztik, argi izan dugu Fundazioaren bokazioa herritarrei azken urteetan zehar eskaini diguten laguntza eta elkartasun zintzoaren parte bat itzultzea izan behar zela.

Gure lana bete izanagatik pozik aurkezten dugu 2017. urteari buruzko Jarduera Memoria, baina kontuan izanik oraindik bide luzea egin behar dugula. Bertan, Fundazioaren lan ildo nagusien berri ematen dugu, horien helburuak eta gure eguneroko lana inspiratzen duten balioak zehaztuz.

Erabateko konpromisoa dugu Klub moderno, irekia eta gardenaren ikuspegia bultzatzeko. Eta betekizun horretan ezinbestekoa da Fundazioa, eibartarrak eta Kluba lotzen dituen zilbor-hestea eta Ipurua estadioa hiri erdialdera hurbiltzeko gai izan dena.

Bere espiritu berritzaileari esker, etorkizunari begiratzen dion Fundazio modernoa daukagu, herritarrak eta gure inguruko enpresa, erakunde, kirol eta elkarte ezberdinei irekia. Gure zeregin nagusia errealitatearekin bat datorren eredu soziala sustatu eta zabaltzea da, genero berdintasuna eta dibertsitatea funtsezkoak diren gizarte batean. Hain zuzen, gizartea transformatzea da gure xede handia. Gure aurrerapena gizarte guztiaren aurrerapena izango da, eta gure ingurunea hobetzen laguntzen badugu soilik esan ahalko dugu lana alferrik egin ez dugula.

Bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz-bihotzez, Fundazioarekin lankidetzan ari diren pertsona eta erakunde guztiei, bai eta gure bazkide eta sustatzaileei. Zuen konpromisoa eta laguntza barik gure jarduera eta memoria honetako lan guztia ez litzateke posiblea izango.

Berriro ere, bihotz-bihotzez, mila esker guztioi zuen laguntzagatik.

Jarrai dezagun!

Amaia Gorostiza

FUNDAZIOAREN PRESIDENTEA

0.GOBERNUA

Fundazioak, bere gobernu egituran, 9 kidek osatzen duten Patronatua dauka, 2017ko udan berritu zena, kargua utzi zuten bi kide ordezkatuz. Era berean, Fundazioak kontsulta-organo bat dauka, erakunde, hiri, gizarte, erakunde, kultura, kirol edo enpresa esparru ezberdinetako 45 kidek osatua, Fundazioaren Batzar Nagusia, urtero biltzen dena, gardentasun ariketa batean, urteko aurrekontuak aurkezteko, Presidente Andereak erakundearen txostena egiteko eta lan lerro garrantzitsuenak erakusteko. Urteko kontuak, aurrekontua eta urteko memoria publikoarentzako irekiak dira webguneko "Gardentasuna" atalean: http://www.sdeTibar.com/eu/fundazioa/gardentasuna

> **URTEKO KONTUAK, AURREKONTUA ETA URTEKO MEMORIA PUBLIKOARENTZAKO IREKIAK DIRA.**

-50 lagun inguru bildu dira Fundazioaren Batzar Nagusian-

0.PATRONATUA

Presidentea, Amaia Gorostiza

Presidenteordea, Mikel Larrañaga, (SD Eibarko Sailburu ohia 2014 eta 2017 arteant)

Fundazioaren Arduraduna, Jon Arregi

Patronoa, Jon Ander Ulazia, (SD Eibarko Sailburua 2012tik)

Patronoa, Juan Luis Mardaras, (ex-Presidente de SD Eibar entre 1988 y 2002)

Patronoa, Oscar Artetxe, (SD Eibarko Lehen Taldeko jokalari ohia 1990 eta 2001 artean)

Patronoa, Jesús Gutiérrez, (Historiagilea, idazlea eta kirol teknikaria Gipuzkoako Foru Aldundian)

Patronoa, Jorge Rubio, (SD Eibarko Nazioarteko Lagunarteen Federazioaren Idazkaria, Mandiola LaguntaldTea lagunartearen Presidentea)

Patronoa, Gergori Prieto, (SD Eibarko Administrazio Arduraduna)

-50 lagun inguru bildu dira Fundazioaren Batzar Nagusian-

0.GARDENTASUNA

Herritarren eta erakundeen konfiantza gure oinarrietako bat izanik, erabateko konpromisoa daukagu gardentasunarekin. Hori dela eta, Fundazioaren gobernuarekin zerikusia duen informazio guztia, organoak osatzen dituzten kide ezberdinak, informazio ekonomikoa (urteko kontuak, aurrekontuak) eta azken bi ekitaldiei buruzko jarduera memoria webgunean eskuragarri dago: http://www.sdeibar.com/eu/fundazioa/gardentasuna

-Presidenteordea, Mikel Larrañaga, Fundazioaren Arduraduna, Jon Arregi, eta Presidentea, Amaia Gorostiza-

0.GURE BALIOAK

Eibarren oso argi daukagu bereizten gaituzten balioak zeintzuk diren. Ondo dakigu nortzuk garen, nondik gatozen eta nola heldu garen hona, eta gure jarduera guztiak erakunde eta gizarte bezala aberasten gaituzten giza-balioetan oinarritzen dira. Balio hauek gure DNA dira eta definitu egiten gaituzte, gure herriarekin elkartzen gaituen lotura osatuz.

Apaltasuna, Lana, Ahalegina, Taldea, Elkartasuna, Sakrifizioa, Gainditze espiritua, Bikaintasuna, Profesionaltasuna, Berrikuntza, Gardentasuna, Zintzotasuna, Dibertsitatea, Berdintasuna

1. KIRO-ARLOA

Fundazioak SD Eibarren kirol-egitura ez profesionala osatzen duten bost kirol-arlo nagusi batzen ditu bere egituran: Emakumezkoen Lehen Taldea, Harrobia, Futbol Eskola, Beteranoen taldea eta Udako Campusak.

> **KIROL-EGITURA EZ PROFESIONALA OSATZEN DUTE BOST KIROL-ARLO NAGUSI.**

1.1 EMAKUMEZKOEN LEHEN TALDEA

-Honoka Yonei, Japoniako jokalaria-

-Idoia Agirre, Estatu Batuetan jokatu duen legazpiarra-

Bigarren Maila Nazionalean dabilen Emakumezkoen Lehen Taldea da Eibarko emakumezkoen futbol-proiektuaren gezi muturra. Aurten, ondo merezitako hirugarren postuan amaitu du, historian denboraldirik onena eginez, Lehen Mailara igotzeko lan ikaragarria egin ondoren. 20 jokalari ditu taldeak eta beste 7 pertsona gorputz teknikoko eta medikuntzako egituraren barruan. 2017/18 denboraldian bere egitura sendotu du Emakumezko Taldeentzako Arduradun berri batekin eta nazioartean eskarmentua duten jokalariak erakarri dituen fitxaketa politikarekin; besteak beste, Idoia Agirre (AEBetatik) edo Honoka Yonei (Japoniatik) iritsi dira. Horrez gain, Fundazioak Emakumezkoen Lehenengo Taldea hedabideetan presentzia eta oihartzun nabarmena duten hainbat ekitalditan agertzeko ahalegina egin du, adibidez, Ipurua Estadioan partidak antolatuz (Euskal Herria Kopako finalerdia, Athletic Cluben aurka, 2017ko maiatzean) edo Madrilen jokatutako lehenengo partidaren bitartez (CD Tacón-en aurkako lagunartekoa, urrian). Halaber, Emakumezkoen Futbolaren

-CD Tacón eta SD Eibarren arteko lagunartekoa, Madrilen-

-Euskal Herria Koparen finalerdikoa Ipuruan, SD Eibar eta Athletic Club B-ren artean-

ikusgarritasuna areagotzeko xedez, Euskal Federazioarekin akordioa lortu zuen, Emakumezkoen Euskal Selekzioak azaroan Ipurua Estadioan jokatzeko Txekiar Errepublikaren aurka. Alde anitzeko akordio baten bitartez, Eibarko Armeria Eskola eta Hamaika Telebistarekin, 2017ko azaroan telebistan eman zuten Emakumezkoen Lehen Taldearen lehenengo partida (Athletic Club B-ren aurka). 2017an ere, Fundazioak LaLigako Emakumezkoen Futboleko Kluben Elkartearekin bat egin du, estatu mailan Emakumezkoen Futbolaren hazkundea bultzatzen duten erabakietan era aktiboan parte hartzeko, beste klubekin batera emakumezkoen futbola bultzatu eta bere ikusgarritasuna handitzeko helburuarekin.

-Emakumezkoen Euskal Selekzioak Txekiar Errepublikaren aurka jokatu zuen Ipuruan-

1.2. HARROBIA

-"Denok Bat" proiektuaren bitartez Harrobiko entrenatzaileek Lehen Taldeko gorputz teknikoarekin batera lan egin dezakete Atxabalpeko saioetan-

-Drogazaletasuna prebenitzeko formakuntza-saioak jokalari eta gurasoentzako, IZAN Fundazioarekin batera emandakoak-

2017an zehar "Denok Bat" izeneko proiektu berritzailea abiarazi da. Horren bitartez, Harrobiko taldeetako teknikari talde bakoitzak gizonezkoen Lehen Taldeko gorputz teknikoarekin astebete igarotzen du, entrenamenduetan parte hartuz eta elkarrengandik ikasteko sinergiak sortuz.

2017/18 denboraldia oso arrakastatsua izan da gure Harrobiarentzat: Ohorezko Infantilak Gipuzkoako Errendimendu Lehiaketan parte hartu du, Emakumezkoen Territorialak Gipuzkoako txapeldunorde amaitu du, Ohorezko B Mailako Jubenila Gipuzkoako txapeldun bukatu eta Euskal Ligara igo da, eta Erregionaleko SD EibarUrko Liga txapelduna izan da, Ohorezko Mailara igotzea lortuz. Horrez gain, 16 urtez azpiko Euskal Selekzioak bost jokalari deitu ditu eta beste hiruk 18 urtez azpiko Euskal Selekzioan parte hartu dute.

TALDEAK

Harrobiaren egiturak 11 talde ditu, horietako 2 emakumezkoenak. Guztira, 209 fitxa daude, jarraian adierazi bezala banatuta. Bestalde, 66 teknikari daude, Harrobiko Zuzendaritza eta Emakumezkoen Taldeen Arduraduna barne, atzematea, teknikari-talde eta medikuez gain. Gainera, inork ez du ordaindu behar Harrobiko jokalari izateko.

Aurreko bi urteetan bezala, Fundazioak Denboraldi Bukaerako Ekitaldia antolatu du aurten, talde espiritua bultzatzeko eta sustatzaileak Harrobiaren jardueretan nahasteko helburuz. Bertan 600 pertsona inguru izan dira, jokalari eta beren gurasoen artean, eta sariak banatu dira giza-balio armaginak hobeto aplikatzen dituzten pertsonen artean.

SD EIBAR B KADETEA

SD EIBAR EMAKUMEZKOEN C TALDEA

SD EIBAR A JUBENILA

SD EIBAR B JUBENILA

SD EIBAR ALEBINA A ETA B

SD EIBAR A KADETEA

SD EIBAR A INFANTILA

SD EIBAR B INFANTILA

SD EIBAR URKO

SD EIBAR EMAKUMEZKOEN B TALDEA

-Ia 600 lagun bildu ditu Harrobiaren Denboraldi Bukaerako Ekitaldiak Ipuruako Anexoan-

-Jokalari ordezkaritza handi batek jaso du Euskal Selekzioaren deia-

1.3 FUTBOL ESKOLA

Futbol Eskola Eibarreko lehen pausoa da kirol praktikan. 189 jokalari ditu, horietako 32 neskak direlarik. Bere egituran, maila teknikoan, 12 pertsonek lan egiten dute. Eskolak prestakuntza- eta gizarte-izaera dauka erabat, izena ematen duten ume guztiei irekita, hautatzeko irizpiderik gabe. Futbol praktikan lehen pausoa izanik, Eibarko hiri osoari zerbitzua ematen dion proiektu soziala da, futbolean jokatu eta giza-balio armaginetan heziketa jaso nahi duen neska-mutil orok bere nahia bete ahal izatea bilatzen duena.

> **189 JOKALARI DITU, HORIETAKO 32 NESKAK DIRELARIK.**

1.4.BETERANOAK

Beteranoen taldea Eibarko historia eta balioen ordezkaririk onena da eta, funtsean, talde bat gehiago da Fundazioaren kirol-egituraren barruan, denboraldirako aurrekontuarekin eta berezko jarduerekin. Batetik, Espainiako Futbolari Beteranoen Elkarteen Espainiako Federazioak (FEAFV) antolatzen duen Iparraldeko Beteranoen Ligan lehiatzen dira erregularitasunez. Halaber, beste taldeekin lagunartekoak jokatzen dituzte kluben urteurrenak ospatzeko, ongintzako kausetarako dirua jasotzeko, eta kirolari ospetsuak edo taldeei omenaldiak egiteko.

-Beteranoak FEAFV-ren Iparraldeko Ligan lehiatzen dira; jardunaldietako bat Torrelavegan izan zen-

-Bixente Oyarzabal "Bixen" kapitain bezala jokatzen Athletic Cluben aurkako lagunartekoan-

-Real Sociedad bezalako beste euskal taldeen beteranoak izan ziren Ipuruan FEAFV-ren Iparraldeko Ligako jardunaldian-

-Jabier Gurrutxaga Beteranoen ordezkaria izan zen Euskal Koparen aurkezpen-ekitaldian Jose Ángel Iribar, Mikel Etxarri edo Koikili Lertxundirekin batera-

Era berean, Beteranoek nazioartean eta nazio mailan Gipuzkoa eta Eibar marka zabaltzen laguntzen dute. Besteak beste, bigarren urtez jarraian Nazio Batuen beteranoen talde batek antolatutako Nazioarteko Txapelketan parte hartu dute Ginebran (Suitza). 2017ko udan, gainera, Eibarrek hartu zuen Txapelketaren bigarren edizioa Atxabalpeko Kirol-hiriaren instalazioetan, Arrasaten.

-Jokalari eta sailburu ohi ugari eta Eibarri lotutako beste hainbat pertsona bildu ziren Astelena Frontoian egindako omenaldi-bazkari handian-

1.5. CAMPUSA

Udako Campusa ume askorentzako lehen kontaktua da futbolarekin eta Eibarrek sustatzen dituen giza-balioekin. Urtero, hiru astez, ia 200 umek heziketa jasotzen dute gure giza-balioetan, hizkuntza prestakuntza (euskara eta ingelesa) eta futbolaren praktika konbinatuz. Elkartasuna, berdintasuna, aniztasuna, errespetua eta adiskidetasuna dira txikienen heziketaren ardatz nagusiak. Gainera, Udako Campusak gure eskualdeko herri guztietako neska-mutilak erakartzen ditu, armaginen jardueraeremua handituz.

-Udako Campuseko umeek une atsegina igaro zuten Yoel atezainarekin-

-Gero eta ume gehiagok gozatzen dute Udako Campusean-

2.BESTE KIROL PRAKTIKA BATZUKT

Bigarren urtez jarraian, Fundazioaren Patronatuak 170.000 eurotarainoko itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen ezohiko hiru lerro onartu zituen, hainbat erakunde eta kirol-ekintza finantzatzeko, Eibarko hiriaren eta Gipuzkoako lurralde historikoaren multikirol aberastasuna hiriarentzat zein Gipuzkoarentzat aktibo garrantzitsua dela sinetsiz.

"Beste futbola posiblea da" leloa kirol amateurra, kirol egokitua edo emakumezkoen kirolera zabal daiteke, futbolak duen hedapena eta laguntza ez duena.

> **"BESTE FUTBOLA POSIBLEA DA" LELOA KIROL AMATEURRA, KIROL EGOKITUA EDO EMAKUMEZKOEN KIROLERA ZABAL DAITEKE.**

2.1. BANAKAKO KIROLARIEI LAGUNTZEKO LERROA

SD Eibar Fundazioa 2017an hasi da Kirolgirekin lankidetzan (Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpeko fundazioa), "banakako kirolariak laguntzeko lerroa" delakoa finantzatuz. Fundazioak bi faseetan gauzatzen du emandako diru-laguntza: alde batetik, funts komun baterako ekarpena eginez (funts horrekin Kirolgik zerbitzu komun ezberdinak eskaintzen die banakako mailan lehiatzen diren Gipuzkoako kirolariei), eta beste aldetik SD Eibar Fundazioak zuzenean babesten dituen sei kirolarientzako berezko funts batekin.

-Denis Itxaso, Diputatu Nagusiordea, eta Amaia Gorostiza, Presidentea, Kirolgirekin egindako akordioaren aurkezpenean-

Horren bitartez, kirolari horiei zerbitzu gehigarri espezifikoak eskaintzen dizkie: kirol arloko mediku aseguru pribatu bat eta Ipuruako kirol instalazioak erabili edo bertako mediku eta kirol profesionalei aholkua eskatzeko aukera.

Hauek dira SD Eibar Fundazioak babesten dituen Eibar inguruko kirol-etorkizun eta/edo etorkizun mediatiko handia duten sei kirolariak:

-Pello Osoro, Markel Alberdi eta Ander Romarate kirolariak Kirolgirekin egindako akordioaren onuradunetako batzuk dirai-

-Odei Jainaga, Pello Osoro eta Malen Ruiz de Azuak, Espainiako txapeldunak euren diziplinetan, ohorezko sakea egin zuten Eibar eta Villarrealen arteko neurketan-

Pello Osoro, Eibar 1992 (26), Triatloia.

Odei Jainaga, Eibar 1997 (20), Xabalina-jaurtiketa.

Malen Ruiz de Azua, Arrasate 1995 (22), Pertika-jauzia.

Markel Alberdi, Eibar 1991 (27), Igeriketa.

Ander Romarate, Eibar 1994 (24), Igeriketa egokitua.

Maite Maiora, Mendaro 1980 (38), Trail Running.

Sei kirolari hauetatik, Osoro, Jainaga eta Ruiz de Azua euren kategorietan Espainiako Txapeldun bilakatu dira 2018ko otsailean.

2.2.KIROL KLUBEI DIRU-LAGUVNTZA

100.000 eurotarainoko partidarekin, Fundazioak Udalak Eibar hiriko klubei urtero ematen dien laguntza bikoizten du. Hain zuzen ere, Udalak norgehiagoka-prozesu baten bitartez esleitzen ditu diru-laguntzak, udal-erakundeak ezarritako baremazio eta kontrol ekonomikoarekin (horren oinarriak 2017ko uztailaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 135. zenbakian jasota daude, eta ebazpena 2017ko abenduaren 11ko Eibarko Udaleko Gobernu Batzarraren Akordioan).

-Hiriko kirol taldeetako Presidenteak Miguel de los Toyos Alkatearen presentzia izan zuen ekitaldian bildu ziren-



-Txus Alzaga CD Urkiko Presidenteak diru-laguntza jasotzeko akordioa sinatzen du Amaia Gorostiza Presidentearekin batera-

Modu honetan, genero berdintasuna bultzatu eta gardentasuna eta laguntza jasotzen duten kluben urteko kontuen egiazkotasuna bermatzen da. Diru-laguntza hauen kirol praktika onuradunen artean Judoa, Gimnasia Erritmikoa, Xakea, Mendizaletasuna, Atletismoa, Squash, Eskia, Euskal Pilota, Txirrindularitza, Urpeko Ekintzak, Igeriketa, Eskubaloia, Triatloia, Karatea, Errugbia, Saskibaloia edo Zaletuen Futbola eta Emakumezkoen Futbola daude. Horrez gain, klub ezberdinei Ipurua Estadioko formakuntzarako espazioak kostu barik utzi zaizkie maiz, formakuntza jarduerak garatu edo bilerak izan ditzaten.

2.3.OIHARTZUN HANDIKO BESTE KIROL EKINTZEN SUSTAPENA

Fundazioak bigarren partida bat eskaintzen du oihartzun handiko beste kirol ekintzak antolatzeko diru-laguntzekin, 2.1 puntuan zehaztutako urteko diru-laguntzak jasotzen ez dituzten klubek garatzen dituztenak; kasu honetan Eibarko Txirrindularitza Klubak antolatutako Balentziaga Memoriala, txirrindularitza amateurreko probarik garrantzitsuena estatu mailan.

-Balentziaga Memoriala, SD Eibar Fundazioak sustatzen duena, izen handiko txirrindularitza proba da estatu mailan-

-Javier Sarrionandia, Joseba Unamuno eta Agustín Lahidalga sailburuek, Amaia Gorostiza Presidentearekin batera, Álvaro Cuadros Balentziagako irabazlea zoriondu zuten-

-Anton Iranzo "Haundi"ren Presidentea (CD Elgoibar) Ipuruako berdegunean izan zen, bere klubaren mendeurren-omenaldian-

-Eibar Eskubaloi Taldeko jokalari Mikel Zabalak urrezko intsignia jaso zuen, Espainiako selekzioarekin lortutako bigarren postua aintzat hartuz-

3. FORMAKUNTZA

SD Eibar Fundazioak argi dauka formakuntza funtsezkoa dela gure gizarterako eta anbizio handiko ikastaro-programa eskaintzen du urtean zehar. Euskal hiriburuetatik kanpo prestakuntza aukera erakargarriak sortzea ezinbestekoa da Eibar eskualdeko hirien artean lider gisa agertzeko. Ipurua Estadioaren Iparraldeko Tribunan kokatzen den Formakuntza Zentroa apartekoa da LaLigan, eta hiru arloko hezkuntza hezketa-programak eskaintzen ditu: kirola, unibertsitatea eta teknologia.

> **HIRU ARLOKO HEZKUNTZA HEZIKETA-PROGRAMAK ESKAINTZEN DITU: KIROLA, UNIBERTSITATEA ETA TEKNOLOGIA.**

3.1. KIROL FORMAKUNTZA

Gipuzkoako Futbol Federazioarekin kolaborazio hitzarmen baten bitartez, hirugarren denboraldiz jarraian, Oinarrizko mailako Entrenatzaile ikastaro ofizialak eskaintzen dira (UEFA B), 30 bat pertsonek izena emanda.

-Jose Luis Mendilibar Entrenatzaile Ikastaroaren hasiera-ekitaldian izan zen-

-Julen Lopeteguik, Real Madrileko entrenatzailea eta hautatzaile nazional ohia, hitzaldia eman zuen etorkizuneko entrenatzaileen aurrean-

3.2. UNIBERTSITATEKO FORMAKUNTZA

Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, Ipuruako Formakuntza Zentroak Futboleko Kluben Kudeaketa Teknikoko Adituen Ikastaroaren hirugarren edizioa antolatu du, Lehen Mailako zelai baten barruan ematen den graduondo bakarra. Bertan, 25 bat ikaslek prestakuntza jasotzen dute denboraldian zehar, etorkizunean gure inguruko kluben kudeatzaile bilakatzeko helburuz.

Horrez gain, eta berriro ere Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, Fundazioak lehenengo Udako Ikastaroa antolatu zuen ekainean. Muntai ikusgarri batekin, berdegunean eszenatokia jarriz, eta Europako klub nagusietako hizlariekin, Euskal Herria, baina baita Kantabria, Aragoi eta Errioxako 200 ikasle baino gehiago hurbildu ziren Iparraldeko Tribunara ikastaroaz gozatzeko.

-Klubeko zenbait profesionalek, kasu honetan Aurora Cid nutrizionista, modulu ezberdinak ematen dituzte Adituen Ikastaroan-

-Carlos Tebas LaLigako Presidentea ikastaroaren amaiera-ekitaldian Maite Fuentes, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko dekanoa, eta Asier Zubillagarekin batera, Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Saileko Zuzendaria-

-Ia 200 ikasle bertaratu ziren lehenengo Udako Ikastarora, Ipuruako Iparraldeko Tribunan-

-Jose Antonio Corbalánek, mediku kardiologoa eta ibilbide handieneko saskibaloi jokalarietako bat, hitzaldia eman zuen Udako Ikastaroan-

3.3. FORMAKUNTZA TEKNOLOGIKOA

Wiko babeslearen eskutik, telefonia mugikorreko fabrikatzailea, Robotika, Bideojokoen Diseinua eta Dron ikastaroak eskaintzen dira bigarren urtez jarraian, asteko egun guztietan. 8 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzenduta, ia 40 lagunek Robotikako prestakuntza jasotzen dute Ipuruako Formakuntza Zentroko instalazioetan.

Hainbat ikerketa zientifikoren arabera, Robotikaren oinarrien ikaskuntza onuragarria da ohiko materia akademikoaren errendimendua areagotzeko, gazteei arazoak modu kreatibo eta funtzionalean konpontzeko aukera ematen dielako.

Herritarren zientzia eta teknologiarekiko interesa sustatzeko, Fundazioak babesle gisa parte hartu du bi lehiaketetan: "Ciencia en Accion", Ministerioa eta euskal erakundeek antolatutako zientzia ekitaldia, eta "Gazterobotika", Euskadiko lehenengo Robotika txapelketa.



-"Meccano" robotak aurkeztu zituen robotika ikastaroak Rubén Peña jokalariarekin batera-

-30 ikaslek jasotzen dute robotikari buruzko prestakuntza Ipuruako Formakuntza Zentroan astero lau egunez-

-Virginia Arakistain Sailburuak SD Eibar Fundazioaren ordezkaria izan zen, Fundazioak Eibar eta Ermuko Udaletxeekin batera sustaturiko "Ciencia en Acción" jaialdian-

-"Gazterobotika"ren aurkezpena, Euskadiko lehenengo robotika lehiaketa, SD Eibar Fundazioa, Eibarko Udala, SPRI, Debegesa eta la Caixaren babesarekin-

3.4. JARDUNALDIAK

Kiroleskolarekin elkarlanean – Eusko Jaurlaritzaren menpeko Euskadiko Kirol Eskola – ekainean Jardunaldi akademiko bat antolatu zen, kirol Akademiek talde kiroletan duten zereginaren inguruan. Ia 150 lagun bertaratu ziren Estadioren Iparraldeko Tribunara, Euskadiko futbol, saskibaloi eta eskubaloi klub nagusiak erakarri zituen jardunaldian, diziplina horietako klub apalenekin ezagutza partekatzeko xedez antolatu zena.



-Jon Redondo, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaria, Jon Ander Ulazia Sailburua eta Jon Arregi Fundazioaren Arduradunarekin, harrobiaren lanari buruzko jardunaldiaren inaugurazioan-

-"Mujer y Deporte" jardunaldian kirol munduan eginkizun garrantzitsua duten hainbat emakume izan ziren. Elena Azpeitiak aurkeztuta, EITBko kirol-kazetaria, bertan izan ziren Goizane Álvarez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaria, Aurora Cid eta Patricia Rodríguez, Nutrizionista eta SD Eibarreko Zuzendari Kudeatzailea, bai eta Laura Mendikute, Emakumezkoen Lehen Talde armaginaren jokalari ohia, eta Amaia Ugarte, GARAko kirol-kazetaria-

Beste bazkide batzuekin lankidetzan, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundia (Kirolgiren bitartez), eragile sozialak eta enpresak, Ipuruako Formakuntza Zentroak hainbat prestakuntza-jardunaldi hartu ditu 2017. urtean zehar. Horien artean, azpimarratzekoak dira "Gestión del Fracaso" izenekoa, Gipuzkoako hainbat kirolari ospetsuren parte hartzearekin, edo "Mujer y Deporte", emakumeek Gipuzkoako kirolean duten presentzia garrantzitsuaren berri eman eta oraindik egin beharreko lana nabarmendu zuena.

-"Gestión de la dificultad y el error" Kirolgirekin batera antolatutako jardunaldia izan zen. Han izan ziren Fran Garagarza Kirol Zuzendaria, Ander Romarate eta Markel Alberdi igerilari olinpikoak eta Kirolbeteko Giza Baliabideen Zuzendaria, Manu Egaña.-

-Fundazioa Bilbao International Football Summit-eko lehenengo edizioaren (BIFS'2017) sustatzaile izan zen, Bilboko Iberdrola Dorrean egindakoa. Bertan Fran Garagarza Kirol Zuzendariak eta Jon Arregi Fundazioaren Arduradunak parte hartu zuten-

4. EUSKARA

SD Eibar Fundazioak konpromiso sakona du Euskararekiko; argi dauka berebizikoa dela gure hizkuntza egunero zaindu eta erabiltzea eta futbol talde bateko figura garrantzitsuenak adibide onenetako bat direla herritarren artean euskara sustatzeko. Ildo horretan, Fundazioak hainbat ekimen bultzatu ditu 2017an zehar. Horietako garrantzitsuena 2016an Emun aholkulari independentearen eskutik martxan jarritako Euskara Planari jarraitasuna ematea izan da.

-"Euskararen Txantxangorria" protagonista izan da Ipuruan jokatutako euskal derbi guztietan-

Plan honen barruan Euskara Batzorde bat eratu da, Fundaziotik zuzentzen dena, baina SD Eibarreko sail ezberdinetako arduradunen presentzia duena eta Klubeko Administrazio Kontseiluarentzako garrantzitsua dena. Fundazioak puntu EUS domeinua sustatzen jarraitzen du (www.sdeibar.eus), baita Euskararen Eguna eta Eusko Jaurlaritzak euskararen alde egindako erakunde kanpainetan parte hartzea, Euskararen Txantxangorriaren presentzia Atheltic Club, Real Sociedad, CA Osasuna eta Deportivo Alavesen aurkako derbietan (kamiseta eta puzgarriekin), eta euskara lehentasuneko hizkuntza bezala duten webgune eta sare sozialetarako testuen eta ikus-entzunezko materialaren sorrera, elkarrizketa, prentsaurreko eta erakunde ekintzetan egindako hizkuntzaren sustapena ere barne hartuz.

-Lehen taldeetako Ainhoa Larruskain eta Asier Riesgo jokalariak Korrikaren aldeko kanpainaren irudi izan ziren-

Gainera, 2017an, modu bereziki aktiboan parte hartu du gizonezkoen eta emakumezkoen lehen taldeen bitartez Korrikaren 20. edizioan, eta euskal hizkuntzaren aldeko beste hainbat jardueretan, esaterako, Hizkelan azoka, lan eremuan hizkuntza sustatzeko, edo gure jokalariek hezkuntza-eremuetan egindako ekintza ezberdinetan (ikastetxeetara bisitak, ekitaldietan parte hartzea). Era berean, Fundazioak Herrialde bakoitzeko euskararen aldeko jaialdiei laguntza eskaintzen die: Kilometroak, Araba Euskaraz, Ibilaldia edo Nafarroa Oinez.

Emakumezko eta Gizonezko Lehen Taldeek Korrikaren alde agertu ziren eta lasterketan parte hartu zuten Eibar eta Fundazioaren langile ezberdinekin

-Mikel Larrañaga izan zen SD Eibar Fundazioak sustatutako "Hizkelan" azokan, euskarak lan-eremuan duen presentziari buruzkoa-

-Jokalari asko ikastetxe, elkarte eta erakunde sozialetara hurbiltzen dira, bere kideekin tarte bat igarotzeko. Asier Riesgok "Izarrekin berbetan" izeneko solasaldian parte hartu zuen, Soraluzeko ikasleekin-

5. KULTURA

Gure kultura bultzatzeari dagokionez, lehentasunezkoa izan da Eibar, Debabarrena eta Gipuzkoa markak zabaltzea. Xede horrekin, Fundazioak ekimen ugaritan parte hartu du. Besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Sailaren "Eskualdeen Txokoa" programan esku hartu zuen, eta lehen taldeko autobusa Donostiako Boulevardera eraman zuen 2017ko azaroan, gure eskualdeko ondarea, kultura eta aktibo turistikoak sustatzeko.

-Euskadiko touroperadore ezberdinen bisita Ipurua Estadioak ezagutzeko kultura- eta turismo-elementu gisa duen gaitasuna ezagutzeko-

-Lehen Taldearen autobusak oihartzun handia izan zuen Donostiako Boulevardean, Debabarrena helmuga turistiko gisa aurkezteko ekintzen barruan, "Eskualdeen txokoa" programan/ Sara Santosen argazkia (DV)-

Horrez gain, Eibarko Antzerki Jardunaldien sustatzaile izan da euren 40. Urteurrenean Eibarko Udalarekin batera, "Jokoz Kanpo" kirolaren balio positiboetan oinarritutako haurrentzako antzerki-lana eskaintzea posiblea eginez.

Eibarko Udalarekin batera ere, hiriko puntu ezberdinetan sei argazki historiko erraldoi jartzeko ekimena finantzatu du, Eibarko XX. mendeko bizitza espazioak gogora ekartzeko helburuz. Argazkietako bat Ipurua Estadioan bertan kokatu da. Hain zuzen ere, Ipuruan partida bat jokatu zuen emakumezkoen lehen taldearen irudi bat da, 1971n neurketa jokatu zuena, agintariek "futbola emakumeentzat egokia ez zela" argudiatuz debekatu arren.

-Omenaldia egin zioten Juan Ortegari, Eibarko antzerki jardunaldien "alma mater" eta Zuzendaria, SD Eibar Fundazioa eta Eibarko Udalak sustatutako jardunaldien 40. urteurrenean-

-Ipuruaren inaugurazioaren (1947) 70. urteurrenean Fundazioaren artxibo historikoan gordetzen diren zelaiaren argazki ezberdinak zabaldu ziren-

-Victoria Pavón, CD Leganéseko Presidentea, M-15 ereduko El Casco grapagailu historiko bat jasotzen, Eibarko benetako ondare industriala, Amaia Gorostiza Presidentearen eskutik-

Era berean, Ipurua Estadioaren inaugurazioaren (1947) 70. urteurrenaren kanpainaren esparruan, Klubaren artxibo historikoren argazkiak zabaltzeko kanpaina martxan jarri zen irailean, berezko ondareari balioa emateko, 70 urte horietan zehar hiriaren eta Estadioren bilakaera historikoa eta urbanistikoa agerian jarriz.

Eibarko kultura eta ondarea sustatzeko helburuarekin, 2017an instituzionalizatu zen Kluba eta Fundazioaren protokolozko opariak 1920. urteaz geroztik Eibarren fabrikatu ziren "El Casco" grapagailu historikoen M-15 eredua izatea, Eibar eta Gipuzkoako ondare kultural eta industrialaren adibide bat gehiago nazio mailan eta nazioartean zabaltzeko xedez.

-SD Eibar Fundazioak Eibarko Udalaren ekintza sustatu du, argazki historiko erraldoiak jartzeko. Ipurua Estadioan 1971ko argazki bat kokatu da, zelai horretan jokatu zen emakumezkoen lehenengo partidari buruzkoa.-

6. BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA

Berdintasuna lehentasunezko lan-eremua da Fundazioarentzat. Bi ardatz espezifikoetan banatzen da: genero-berdintasuna eta identitate sexuala. Genero-berdintasuna sustatzerako orduan, Fundazioak argi dauka futbol-klub bat plataforma paregabea dela gazteen artean harrera ona izan dezaketen mezuak igortzeko. Horrenbestez, emakumeak futbol profesionaleko klub baten bizitza aktiboan eta gizarteko arlo guztietan integratzeko eredu positiboa zabaltzeko lan egiten du.

-Eibarko egituraren menpeko hainbat emakumek Emakumearen Nazioarteko Egunean parte hartu zuten, kanpainaren irudi gisa-

Lehenengo Mailan erabaki-postuetan emakumeen ehunekorik altuena duen kluba izatea (SD Eibarrek Lehen Mailako emakumezko bi presidenteetako bat eta emakumezko zuzendari gerente bakarra dauka), arlo honetan egiten den lanaren adibiderik onena dugu. Gure taldeetan emakumezko 56 fitxa izateaz gain, Fundazioak sarritan erabiltzen ditu Emakumezkoen Lehen Taldeko jokalariak erakunde kanpainetan, ekitaldi protokolarioetan, hezkuntza zentro eta erakundeetara egiten diren bisitetan, eta Klubaren irudi komertzial moduan maila guztietan. Fundazioak, gainera, hedabideetan presentzia nabarmena duten kanpainak sustatzen ditu, gizartea genero berdintasunaren gainean kontzientziatzeko: Emakumearen Nazioarteko Eguneko kanpaina horren adibide garbia da. Barne-mailan, Fundazioak bere kode etiko eta eskuliburuaren bidez, estamentu guztietan errespetatu egiten ditu berdintasun, diskriminazio eza eta sexu-jazarpenaren prebentzioaren politikak.

-Ipuruako emakumezkoen lehen partidako jokalariek omenaldia jaso zuten berdegunean Idoya Sarasketa zinegotzia eta Amaia Gorostiza Presidentearekin-

-Eibarko lehenengo emakumezko taldea 1972an-

2017 amaieran, 1971n agintari frankistek debekatutako partida jokatu zuen emakumezko taldeak omenaldia jaso zuen 46 urte beranduago berriro berdegunera atera eta gero. "Futbola emakumeentzat egokia ez zela" ezartzen zuen bidegabeko debekuaren aurka egin zuten aparteko emakume ausart horiek berdintasunaren aldeko borroka luzearen bidea ireki zuten kirolean ere.

-Lehen taldeetako kapitainak, Ainhoa Alonso eta Dani García, LGTBI+ kolektiboaren eskubideen aldeko kanpainaren irudi izan ziren-

Identitate sexualaren berdintasunari dagokionez, Fundazioak hainbat kanpaina egiten ditu gizarte plural baten aniztasuna eta aberastasuna agerian jartzeko, bai eta sexu-identitatearen aukera ezberdin guztiekiko errespetua eta tolerantzia sustatzeko. LGTBI+ Nazioarteko Egunaren ospakizuna da lan lerro horren urteko lorpen nagusia, komunikazio kanpaina handi baten bitartez zabaldu zena, zeinean bi kapitainek erakundearen konpromisoa orientazio sexualarekin argi utzi zuten, "Bost axola zein taldetan jokatzen duzun-Eibar LGTBfobiaren aurka" goiburuarekin. Gainera, kapitainek sarritan ortzadar besokoa erabili dute lehiaketa ofizialetako partidetan, konpromiso hori are ikusgarriagoa egiteko.

-Kapitainek ortzadar besokoa eraman zuten kirolean LGTBfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko, Panenka Aldizkariarekin batera egindako ekintzan-

-Gure gizartearen irudi errealista baten proiekzioa izan zen protagonista "La verdadera cara de nuestro éxito" izeneko kanpainan-

7.GIZARTE ARLOA

Gizarte arloan era guztietako ekintzak garatzen dira, Fundazioa eta Kluba inguruko gizartearekin lotzeko xedez. Fundazioak urtero ekimen ezberdin anitzetan esku hartzen du, berezko ekitaldiak antolatuz, zein beste erakunde eta elkarte ospetsuek egindakoei laguntza eskainiz. Horren adibide ona Gabonetako kanpaina dugu, zeinean elikagai-bilketa bat egiten duen Elikagaien Bankurako.

Aurten, gainera, Fundazioaren irudia modu ofizialean babesle gisa agertu da Gipuzkoa osoan egindako kanpainian. Gabonetako kanpainan ere, Gurutze Gorriarentzako jostailu-bilketa egiten du, eta hainbat ospitale, zentro sozial edo ezintasunen bat duten erabiltzaileen elkarteetara bisitak antolatzen ditu.

-SD Eibar izan zen Gipuzkoako Elikagaien Bankuak antolatzen duen Elikagaien Bilketa Handiaren kanpainaren irudi nagusia. Londres Hoteleko aurkezpen-ekitaldian Donostiako Alkatea, Eneko Goia, Gipuzkoako Gizarte Politikako Diputatua, Maite Peña, SD Eibar Fundazioaren Lehendakariordea, Mikel Larrañaga, eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren Presidentea, José Manuel Pineda, izan ziren-

-Naiara Lete, Takashi Inui eta Bebé jokalariek Elikagaien Bilketa Handian parte hartu zuten-

Halaber, urtean zehar ikastetxeetara bisitak egiten dira, eta estadioan harrera egiten zaie ikasleei. Bertan, Lehen Taldeko eta Emakumezkoen Lehen Taldeko jokalariek umeak ezagutzen dituzte maiz, futbolariak giza-balioak eta jokabide eredu positiboen ereduei lotuta ikustea oso garrantzitsua baita gazteentzat.

Beste ekimen solidario bat Uda eta Gabonetako Campusetako kirol-arroparen soberakinak, bai eta Klubeko denda ofizialek soberan duten stocka hirugarren munduko guneetara dohaintzan bidaltzea da. 2017an, GKE edo Gipuzkoako elkarteen bitartez arropa bidali da planetako txoko desberdinetara: Txileko hainbat gune txiro, Atenasko kanpoaldeko errefuxiatu-esparruak, eta Indiako gune oso txiro bat.

-Elurrez estalitako Ipuruan aurkeztu zen Jostailu Bilketa, Gurutze Gorria eta Eibar eta Ermuko Udaletxeekin-

Izaera solidarioko jardueren barruan, eta Greziako errefuxiatu-esparruetara arropa bidaltzeari jarraipena emanez, Fundazioak "Futbola mugarik gabe" izeneko kanpaina garatu zuen Wiko babesle eta bazkidearekin batera, errefuxiatuen dramaren inguruko kontzientziazio positiboa bultzatzeko eta, era berean, Gipuzkoara iritsi berri zen errefuxiatu familia bati lan aukera bat eskaintzeko.

Eibarko Piura Kirol Eskola, duela 13 urtetik Peruko eskualde txiroenetako batean kokatzen dena, SD Eibar Fundazioaren arreta-guneetako bat da. 2017an zehar, eskolako arduradunei Eibarrera etortzeko bidaiak ordaindu zaizkie, metodologian prestakuntza jaso dezaten, eta proiektu bat martxan jarri da bere egoitzan kirol-materiala finantzatzeko, batez ere, emakumezkoen taldeei bideratuta, Eibarko Egoaizia GKErekin elkarlanean.

-LaLigako "Futura Afición" kanpaina Eibarko San Andrés Eskolan aurkeztu zuten, Anaitz Arbilla eta Iván Ramis jokalarien eskutik-

Piura eskualdean laguntzeaz gain, Metodo berdina erabili zen 2017ko azaroan, dohaintzak biltzeko zero lerro bat ezarriz eta Errege Kopako partida batean bildutako sarreren diru guztia Gipuzkoako Gurutze Gorriari emanez, Galiziako suteen ondorioz etxerik gabe geratu ziren ehunka lagunei laguntza bidaltzeko.

Fundazioak ahalegina egin du gipuzkoarren elkartasuna baliatuz herrialde horretara laguntza gehiago bidaltzeko. Izan ere, berriki, Peruko Gobernuak larrialdi-egoera ezarri zuen "El Niño" uholdeak sortutako hondamendiaren ondorioz, hainbat eta hainbat pertsonei kalte handiak eragin diena. SD

-Aurora Cid Nutrizionistak eskualdeko jokalari eta gurasoei bideratutako prestakuntza saio ugari eman ditu, kasu honetan Soraluzen-

-Siriako errefuxiatuek kirol-material ugari jaso zuten Atenasen, futbolaren bitartez aisialdiko programak garatu ahal izateko-

Eibar Fundazioak, SD Eibarrekin elkarlanean, Eibarko Egoaizia GKEri Ligako partida batean bildutako diru guztia eman zion, hondamendiaren kalteak leuntzeko.

-2017an lankidetza hitzarmen bat sinatu zen Eibarko Piura Kirol Eskolarekin (Peru), Julio eta Wilmer Bermejo anaiek eta Egoaizia GKEk bere Presidente Blanca Cabezudorekin ordezktzen dutena.-

-Eibarko Piura Kirol Eskolan futbol talde askok jokatzen dute, gizonezkoak zein emakumezkoak-

Fundazioak beste gizarte-jarduera batzuetan parte hartzen du, esate baterako, ikastetxe, oinarrizko futboleko talde txiki eta Gipuzkoa osoko elkarteei sarrerak dohain ematen dizkie, kontzientzia-zio-kanpaina ezberdinak antolat-zen ditu, zeinetan jokalariak protagonistak diren (Ortzadar Besokoa eramatea kirolean LGTBI+ kolektiboaren aurkako diskriminazioaren aurka, Emaku-meen Nazioarteko Egunean edo Emakumeen Kontrako Indarkeria-ren Egunean egindako erakunde kanpaina, Liburuaren Egunean irakurmena sustatzea, Autismoa edo Haurren Kantzerraren Nazioarteko Egunen oroipena…), Eibarko auzo guztien jaietan ekintza ezberdinak babesten ditu, eta gizarte- eta elkartasun-ikuspe-gia duten beste hainbat jarduera sustatzen ditu gizartearen esparru guztietan.

-Peruk Bilbon daukan Kontsulak eskerrak eman zizkion Fundazioari ingurumen-hondamendiaren ondoren eskainitako laguntzagatik-

-Galiziako suteen kalteak leuntzeko, partida batean bildutako dirua dohaintzan bidali zen eskualde horretara Gurutze Gorriaren bitartez-

-Yoel eta Arbilla jokalariek maitasuna adierazi zieten minbizia pairatzen duten haurrei, ASPANOGIrekin batera egindako kanpainan-

-Japoniako umeen hainbat taldek entrenamendu bat egin zuten Atxabalpeko instalazioetan, Donostia Cup jokatzeko egonaldian-

SDEIBAR
SDEIBAR
SDEIBAR

8.ENPRESAK, EKINTZAILETZA ETA LEHENENGO LAN-ESPERIENTZIA

Fundazioa Ipurua Estadioko enpresa-eremuaren erabilera bultzatzen ari da aldi oro, Enpresa Gunea deitutakoa, Kluba hiriko eta eskualdeko enpresa-sarearekin lotuz, diru-sarrerak ekartzen dizkion lerroetako bat baita hori. Gainera, partidarik jokatzen ez den egunetan estadioa bizirik mantentzeko konpromisoa agerian uzten du. Enpresa Gunearen instalazioetan enpresa-ekitaldiak egin dituzte enpresa txiki, ertain eta handiek, bai eta langileentzako formakuntzak, hitzaldiak edo produktuen aurkezpenak.

-Fran Garagarzak "Talento y Deporte" jardunaldian parte hartu zuen, HAYS giza baliabideen aholkularitzak antolatutakoa-

-Iparraldeko enpresari talde batek Sud Ouest-ek antolatutako lan eta networking jardunaldi bat burutu zuten Ipuruako instalazioetan-

2017. urtean zehar, enpresa izaerako ekitaldi ugari hartu zituen Enpresa Guneak.Azpimarratzekoa da Adegi (Gipuzkoako enpresarien elkartea) eta SEAT, Unceta, Repsol, Banco Santander, Hays, AVIA, Wiko, Euskaltel, Cadena SER eta Diario Vasco enpresen presentzia, gunea erabili ohi duten enpresa batzuk. Enpresa-jarduerak Ipurua Estadioaren bisita gidatuekin osatzen dira eta otordu-zerbitzua ere dago instalazioetan. Horrela, estadioa asteko zazpi egunetan zehar erabiltzen da, Liga ez dagoen sasoietan ere.

-Gipuzkoako enpresarien elkarteak, ADEGI, kudeatzaileentzako lan-jarduna eman zuen Ipuruako Palkoan-

-Basquetour Turismoaren Euskal Agentziarekin daukan harreman ona baliatuta, Fundazioak ekimen ugari antolatu ditu beraiekin-

Gainera, ekintzailetza eta lehen lan-esperientzia bultzatzeko helburuz, Fundazioak unibertsitateko 10 ikasle izan ditu praktikaldian 2017an, erakundearen gune ezberdinetan, eta beste lau ikasleri gradu amaierako proiektuak garatzeko informazioa luzatu die, hainbat bilera eta elkarrizketen bidez. Ekintzailetza sustatzeko lerroaren barruan, babesle gisa era aktiboan parte hartu du Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debabarrenako udaletxeek antolatutako eta Debegesak (eskualdeko garapen agentzia) sustaturiko ABIAN Enplegu eta Lanbide Heziketa Azokan. Ekitaldi horrek 79 lanpostu eskaini zizkien Debabarrena eskualdeko ikasleei. Era berean, Ekinguneren jarduera bultzatu du, Eibarresa Ekintzaileen Elkartea, hauek antolatutako hitzaldietan parte hartuz eta Ipurua estadioko espazioak doan utziz.

-Mikel Larrañaga Presidenteordeak SD Eibar Fundazioak bultzatutako ABIAN enplegu azokaren irekiera-ekitaldian parte hartu zuen-

-Debabarrenako udalerri guztietako alkateak Ipuruan bildu ziren -

9.IPURUA TOURRA ETA MUSEOA

Aurten, 1947. urteko irailean eraikitako Ipurua Estadioaren eraikuntzaren 70. urteurrena ospatu da. Europako bost liga handietako lehen mailako eremu txikiena izanik, zale askorentzat lehen mailako turismo puntua bilakatu da Ipurua, eta potentzial handia dauka Gipuzkoa eta Euskadi markaren sustapenean, kudeaketa zuzena eginez txikia izateak handien aurka lehiatzeko desabantaila ez delaren sinbolo gisa.

Fundazioak, 2017ko erdialdetik aurrera, bisita gidatuen programa bat martxan jarri du, larunbat eta igande guztietan. Horretarako, Basquetourrekin merkataritza akordioa egin du, bisitak webgunearen bitartez saltzeko (www.sdeibar.com/tour), bisita kopuruaren aldetik emaitza bikainak lortuz. Gainera, SD Eibar Fundazioa behin betiko museoa eraikitzeko proiektua amaitzen ari da, Ipuruako Ekialdeko Tribunaren azpian. Dagoeneko obra-baimena dauka, eta beraz, laster Klubaren artxiboa gorde ahal izango du, dokumentuak, argazkiak, bideoak eta material historikoa batu, digitalizatu, gorde eta aintzat hartuz, bai eta publikoa eta ikertzaileen esku jarriz.

-Ipurua Museoan benetako altxorrak daude, adibidez 1956ko Girona CFren banderatxo hau. 61 urte beranduago, Girona Lehen Mailara igo eta Eibar bisitatu zuen.-



-Besteak beste, Ipuruako Tourrean publikoak aldagelak, aulkiak edo berdegunea ikus ditzake-

10. 2017. URTEKO KONTUAK

BALANTZE LABURTUA	30/06/2017	30/06/2016
A) AKTIBO EZ-ARRUNTA	**58.737,81**	**58.737,81**
I. Epe luzeko finantza inbertsioak	58.737,81	58.737,81
B) AKTIBO ARRUNTA	**94.856,39**	**62.340,01**
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	63.442,08	40.179,23
1. Hainbat zordun	63.442,08	10.990,00
2. Herri Administrazioekiko bestelako kredituak	-	29.189,23
IV. Epe motzeko periodifikatzeak	-	4.186,50
V. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	31.414,31	17.974,28
AKTIBOA GUZTIRA	**153.594,20**	**121.077,82**
A) ONDARE GARBIA	**41.351,39**	**41.351,39**
	41.351,39	41.351,39
A-1) Fondo Propioak		
I. Sorrerako zuzkidura / Gizarte funtsa	**30.000,00**	**30.000,00**
II. Aurreko ekitaldietako emaitzak	11.351,39	72.873,46
III. Ekitaldiko Soberakinac	-	-61.522,07
C) PASIBO ARRUNTA	**112.242,81**	**79.726,43**
IV. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	78.751,81	79.726,43
1. Hainbat hartzekodun	60.198,60	28.799,25
2. Ordaintzeko dauden lansariak	3.038,68	1.129,29
3. Herri administrazioekiko bestelako zorrak	15.514,53	7.391,89
4. Bezeroen aurrerakinak	-	42.406,00
V. Epe laburreko periodifikatzeak	33.491,00	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	**153.594,20**	**121.077,82**

11. 2017-18KO AURREKONTUA

DIRU-SARRERAK

SD Eibar K.E.A.-ren ekarpena	581.500
Bazkide nagusien Donazioak	559.500
Futbol Eskolaren kuotak	45.000
Udako eta Neguko Kanpusak	18.000
Ikastaroak	14.000
Bazkide Kolaboratzaileen Donazioak	12.000
Dirulaguntzak / GFF	11.000
Jokalarien Formakuntza	8.000
Enpresa Gunea - Ipurua Tour	7.000
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	**1.256.000**

GASTUAK

Fundazioa eta Harrobiko soldatak	525.000
Kirol materiala - Arropa	175.000
Desplazamendu eta kilometrajeak	175.000
Publizitatea eta kanpo harremanak	100.000
Kirol Elkarteei dirulaguntzak	100.000
Harreta medikuak	40.000
Zerbitzu profesionalak	25.000
Bestelako gastuak	25.000
Gastu federatiboak	25.000
Beteranoak	20.000
Epaileak	15.000
Bestelako kirol materiala	12.000
Alokairuak eta kanonak	8.000
Errotulazioak eta merchandising	5.000
Medikuntza materiala	2.000
Bestelako hornitzeak	2.000
Zigorrak	2.000
GASTUAK GUZTIRA	**1.256.000**
USTIAPENEKO EMAITZA	0

SD EIBAR fundazioa